


# Begira



2006ko apirila // 11 zk.



## Precinox: ULMAren jarduera berria



**Inaxio Oliveri**  
*"Mondragon Unibertsitateak erreferentziazko unibertsitate izan behar du Euskal Herrian"*



**Mario García eta Lor**  
*Euskadiko salbamendu txakurren taldeko kideak*

# Aurkibidea

11 zk. • 2006ko apirila



**3 > HIZPIDEA...**: Beste urrats bat. **4 > ALBISTEAK ETA GAUR EGUNGO GAIAK**: Lankidetzta hitzarmena ULMA Construcción-ek Txilen duen filialaren eta PUC Eraikuntza Zibileko Eskolaren artean. ULMA Forja negozioak ISO 9001 Kalitate Egiatagiria eta ISO 14001 Ingurumen Egiatagiria berritu ditu. ULMA Handling Systems negozioaren instalazio berriak inauguratu dira. ULMA Packaging negozioko bazkide berriei ongietorria. **12 > AURREZ AURRE**: Inaxio Oliveri, Mondragon Unibertsitateko errektorea. **14 > MAHAI INGURUA**: Gazteak lehenengo lanaren aurrean. **18 > ERREPORTAJEA**: PRECINOX, ULMAren jarduera berria. **21 > GUTARREN ARGAZKIAK ETA HISTORIAK**: Mario García eta Lor. **22 > GURE KONPROMISOA**: Elkartasunean inbertitzea, ULMA Fundazioaren xedea. **24 > ALBISTE OSASUNGARRIAK**: Utikan ke guztiak. **25 > ASTEBURURAKO TXANGOAK**: Haitzulo koba: erraldoien leiho. **26 > ZER DERITZOZU?** **28 > AGENDA ETA IRADOKIZUNAK**.

2005a ekitaldi bikaina izan zen ULMA Talde osoarentzat, izan ere urteko aurreikuspenak gainditu ziren bai negozio zifrari dagokionez bai errentagarritasunari eta lanpostu sorrerari dagokienez. Ekitaldian 508 M€-ko salmenta bateratuak lortu genituen, urtetik urterako areagotzea %18koa izanik.

Gure nazioarteko salmentak %35ean gehitu ziren, eta 211M€-rekin salmenta guztien %42 dira jada. Bilakaera horrek baieztatzen du Taldeak asmatu egin duela azken urteotan egindako nazioarteko hedapenaren politikarekin; aipatzekoa da, bereziki, aurreko ekitaldian geureganatutako Bauma (Polonia) eta Alpi (Italia) enpresen integrazio prozesua.

kudeaketan eta zuzendaritzan trebetasunak hobetzeko, adibidez. Lanpostu sorrerari dagokionez, aurreko urteetako dinamikari eutsi zitzaion, eta 206 langile berri gehitu ziren Taldera. Kooperatibetako bazkide kopuruak 106 pertsonako gehikuntza garbia izan zuen. Orotara, ULMA Taldearen plantilla, 2005eko abenduaren 31n, 3.150 pertsonakoa zen.

Enpresa Sustapen eta Garapenaren atalean, ekitaldi hau ekintza berriez beteta egon da, eta aurreko urteetan hasitako batzuk argia ikusten hasi dira; guztien artean hauek dira aipatzekoak: ekitaldian Hormigón Polímero negozioan egindako produkzio instalazioen zabalkundearekin amaitu zen eta fatxada aireztatuen jarduera berriari

550 Milioi eurokoak direla, nazioarteko salmentak 246 Milioi eurokoak izanik.

Bukatzeko, ikus dezakezue, Begiran atal berriak gehitu ditugu, eta gure asmoa da horiek osatzen eta hobetzen joatea, guztion laguntzarekin. Zuen gustukoa izatea espero dugu. Azkenik, beste behin ere eskertu egin nahi dugu gure bazkide eta langile guztien dedikazioa eta konpromisoa; izan ere, zuen ahalegin eta ilusiorik gabe ez genituzke lortu ditugun helburuak erdietsiko. Mila esker.



## Beste urrats bat

TXOMIN GARCÍA. ULMA Taldearen Zuzendari Nagusia.

2005eko ekitaldian Arabiar Emirerriak (Construcción), Mexiko (Agrícola) eta Rumanian (Packaging) filialak osatu dira eta jada ULMA Taldeak nazioarteko 27 filial ditu. Ekitaldi bukaeran guztira 850 langile zeuden ULMA Taldeko atzerriko filialetan. Ekitaldi bukaeran, halaber, Polonia eta Errusiako filialak (Packaging) osatzen ari ziren.

ULMA Taldearen emaitza bateratuak %18 gehitu ziren ekitaldian, aurreko urteetako emaitzak nabarmen hobetuz eta Taldea egiten ari den hazkunde eta garapen politiken irmotasuna berretsiz. Politika horiek hein batean ekitaldian egindako 100M€-tik gorako inbertsioetan islatzen dira, zeinak, ia bere osotasunean, sortutako Cash Flowaren bidez estali diren.

Pertsonen garapenaren atalean, aurrera jarraitzen dugu ULMA Taldearen estrategian funtsezko faktore den formazio etengabearen politikarekin. Aipatzekoa da, 2005ean zehar garapen profesionalera bideratutako programak eta ikastaroak inplementatzen jarraitu zela, proiektuen

hasiera eman zitzaion; Forja negozioan martxan jarri ziren 16" baino gehiagoko bridentzako ijezkailu eta mekanizatuko instalazioak; Handling Systems negozioak bere instalazio berriak amaitu zituen eta SCS jarduera berriari ekin zion; Packaging negozioak altzairu herdoilgaitzean egindako doitasunezko galdaragintzaren bideragarritasunari buruzko azterketa amaitu zuen IFS (Barne Fluxuen Kudeaketa) jarduerarekin konbinatuz; eta ekitaldiaren amaieran, jarduera berri horren garapena 2006ko ekitaldian martxan jarriko den kooperatiba baten bidez egitea erabaki zen; halaber, Packaging Ingeniaritza eta Termoformatu Industrialeko jarduera berriei ere ekin zion; Orga Jasotzaileetako negozioak aurreko ekitaldian sortutako jarduera berria bultzatu zuen, Ordezko Pieza eta Osagarri unibertsalen jarduera, hain zuzen, eta nazioarteko merkatuetara zabaltzeko proiektuari ekin zion.

Beste gauza batzuen artean, aipatzekoa da 2006ko ekitaldian Talde osorako salmenta aurreikuspenak gutxi gorabehera

**2005eko ekitaldian  
508 milioi euroko salmenta  
bateratuak lortu genituen,  
2004ko ekitaldiarekin  
alderatuz, %18 gehiago.**

## Lankidetzaren hitzarmena ULMA Construcciónek Txilen duen filialaren eta PUC Eraikuntza Zibileko Eskolaren artean

ULMA Construcciónek Txilen duen filialak eta Txileko Pontificia Universidad Católica (PUC) Eraikuntza Zibileko Eskolak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute. Ikasketen etxeko San Joaquín campusean, Eraikuntza Zibileko Eskolako Zuzendariak, Cristián Píera Godoy jaunak, eta ULMAk Txilen duen gerenteak, Juan José Ayestarán Uriarte jaunak, hitzarmen esklusibo garrantzitsu hau sinatu zuten; Txileko eta Amerikako unibertsitateko garrantzitsuenetako baten eta gure inguruko enpresa baten artean sinatu den lehenengo hitzarmena da. Hala, bada, ULMA eraikuntzaren sektoreko profesionalen prestakuntzarekin lotutako maila akademikoan sendoa sartu da; hitzarmen horren bidez truke akademikoa eta teknologikoa egingo da, eta ULMAk, lantegi teorikoen eta praktikoen bidez, prestakuntza espezializatua eskainiko du Eraikuntza eta Obra Zibila ikasgaietan. Ikasgai horiek Eraikitzaile Zibila ikasketen curriculumean txertatzen dira. Horrekin batera, Aldamioen eta Enkofratuen erabileran espezialistak prestatzeko ikastaroak eskainiko dira. Ikastaro horiek ULMAren eta PUCen bermea izango dute, eta eraikitzaileei, ingeniariari, obra buruari, arduradunari eta maisu espezialistari zuzenduta egongo dira. Bestalde, ULMAko Txileko profesionalak dituzten ezagutza teknikoak etengabe hobetzeko asmoz, Eraikuntza Zibileko Eskolan beste gaitasun batzuk ere landu ahal izango dira, gure bezeroei Aldamio eta Moldaketen sistemak saltzeko eta aplikatzeko orduan aholkularitza hobea eskaintzeko. Azkenik, badira hitzarme-



na osatzen duten beste puntu batzuk: ikasleei aldi-aldi eskaintzeko hitzaldiak, Eraikuntza Zibileko Eskolako azoketan eta ekitaldietan parte hartzeko aukera, mintegien babesa, publizitatea PUCek argitaratutako aldizkari espezializatuetan, praktika profesionalak ULMArentzat interesgarriak diren gaiei buruzko tesiak garatuz, eta ULMA izena izango duen gela bat martxan jartzea, gure produktuen informazio teknikoa eta komertziala eskainiko dituen gela hori karrerako azken urteetako eta graduatu ondoko ikastaroetako ikasleei zuzenduko zaie nagusiki.



**ULMA PACKAGING NEGOZIOKO URTEKO BILTZARRA.** Otsailaren 15etik 17ra Donostia Hotelean ULMA Packaging negozioko filialen urteko biltzarra egin zuten. Bertan nazioarteko merkatuaren egoerari buruz hitz egin zen, 2005. urtean izan zuten bilakaera aztertuz eta hurrengo ekitaldirako aurreikuspenak egin zituzten. Bateratze lan hori funtsezkoa da merkatuaren sintomak aztertzeko eta horren aurrean ekintzak garatzeko.

ULMA Hormigón Polímero

## ULMA Hormigón Polímero negozioan hobekuntzak bultzatzeko topaketak

ULMA Hormigón Polímero negozioak jardunaldiak antolatu ditu 4 egunetan, eta bertan taldeko pertsona guztiek hartu dute parte. Iazko bilakaera nahiz 2006. urterako planteatutako helburuen nondik norakoak azaldu ziren. Jardunaldien ardatz nagusia pertsonen parte hartzea izan zen, jarduketa eremu guztietan hobekuntzak sustatu ahal izateko. Lehenengo fasean gaur egungo egoera aztertu zen, eta ondoren, taldeka,



hobekuntza arloetan aplikatu daitezkeen planak planteatu ziren. Jardunaldiak Arantzazun egin ziren, eta helburu nagusia gai garrantzitsuenak aztertzea eta egunak ahal beste aprobetxatzea zen. Jardunaldi hauek harrera ona izan dute, eta hobekuntzak egiteko iradokizun ugari jaso dira; iradokizun horiek guztiak aurrera eramateko hobetaldeak sortuko dira, ideiak ekintza bihurtzeko.

ULMA Forja



## ULMA FORJA NEGOZIOAK OINARRIZKO HORNITZAILE IZENDAPENA LORTU DU JOHN DEERE ENPRESAN.

John Deere enpresak, nekazaritzako makineriaren fabrikazioko munduko enpresa nagusiak, "Lortu Bikaintasuna" deritzon programa bat du hornitzaileak ebaluatzeko; programa horrek enpresa hornitzaileen eraginkortasuna neurtzen du Kalitateari, Banaketari, Sintoniari, Euskarri Teknikoari eta Kostuen Kudeaketari dagokienez. Hala, bada, enpresa horrek duela gutxi ULMA Forja-ri Oinarritzko Hornitzaile izendapena eman dio, aurreko bost irizpide horien balorazio altua egin baitu. Bestalde, ULMA Forja-ren eraginkortasuna aitortu ondoren, JOHN DEERE enpresak etengabeko hobekuntzako ildo beretik lanean jarraitzera bultzatu du, HORNITZAILE KIDE sailkapena lortzeko; maila hori ebaluazio sistema horren baren lor daitezkeen altuena da. JOHN DEERE enpresak nahiz ULMA Forja negozioak 2006ko balorazioan ULMA maila horretara iritsiko dela uste dute.

ULMA Agrícola

## ULMA Agrícola instalazio bat egin du CAF-erako

ULMA Agrícola negozioak Multikapera ereduko berotegietan dituen aukerei nahiz estaldurretan, automatismoetan eta ekipamenduetan dituen irtenbideei esker, egitura horiek bezeroak nahi duen aplikazioan erabil daitezke. Ekipamenduei dagokienez, aukera errazena industri pabiloiak izaten dira; gero eta gehiago eta helburu askotarako erabiltzen dira. Azkeneko hilabeteetan, ULMA Agrícola negozioak instalazio bat egin du Construcciones y Auxiliars de Ferrocarriles (CAF) S.A. enpresarentzat, tren sistemetarako osagaien diseinuan, fabrikazioan eta mantentze lanetan nazioarteko liderretako bat den enpresa horrentzat. CAFek Beasainen (Gipuzkoa) duen produkzio gunean egin da instalazioa. Estaldurak 55 metroko luzerako M8 motako bi nabe ditu, eta fabrikazio prozesuen artean trenen kaxak bertan babesteko ezarri dituzte.



## ULMA Hormigón Polímerok DIT agiria lortu du Fatxada Aireztatuen linean

Egokitasun Teknikoko Agiria (DIT), definizioz, Instituto de Ciencias de la Construcción Eduardo Torroja (IETcc) institutuak egiten duen balioespen tekniko positiboa da, eta eraikuntzako eta lan publikoko enpleguaren egokitasuna, eta tradizionalak ez diren eraikuntzako materialen, sistemen edo prozeduren egokitasuna balioesten ditu. Erabiltzaile guztiei interesatzen zaie, eraikuntzaren sektorean kalitatea hobetzeko funtsezko tresna baita; baina bereziki teknikariei (arkitektoak, ingeniariak, aparejadoreak, arkitekto-laguntzaileak etab.), fabrikatzaileei eta herri administrazioei interesatzen zaie. Eraikuntzan berrikuntzak sustatzeko egokia da, material berrien erabileraren aurrean egon daitezkeen arazoak gainditzeko. Ebaluazio eta izapidetze prozedura 2004ko apirilean hasi zen, ULMAk produktuari eta aurreikusitako aplikazio eremuari buruzko txosten tekniko bat egin zuenean. Txostena aztertu ondoren, **Batzorde Teknikoak** ULMAren Fatxada Aireztatuak DIT agiria lor zezakeela erabaki zuen; ondoren, IETcc institutuan ebaluazioa bideratzeko arduradun bat izendatu zen (**Txostengilea**), eta pertsona horrek produktuari buruzko informazioa eskatu du azken hilabete hauetan. Lan guztien emaitzak izan zituztenean, 2005eko abenduaren 14an Adituen Batzordea bildu zen, eta IETcc



institutuarekin batera, agiria ematea erabaki zuten. Bere industri jarduerako beste eremu batzuetan bezalaxe, ULMA Hormigón Polímero negozioko aurrera egiteko duen gaitasuna erakutsi du eta Europako kalitate lasterketan lehen postua lortu du, **Egokitasun Teknikoko Agiria** lortzean.

## ULMA Orga Jasotzaileak biltegiertzeko irtenbideen aukera zabalena aurkeztu zuen LOGIS EXPO azokan



eskabideak jasotzekoak, pilotzaileak, erretraktiak, trizikloak eta lau gurgpilekoak) erabilera, zehaztasuna eta eraginkortasuna egiaztatu ahal izan zuten. Berrikuntza moduan, erdi egokitutako orga jasotzaile bat aurkeztu zuen ULMAk, eta orgaren erdian erabilitako hasierako egoeraren eta berregokitutako beste erdian lortutako azken produktuaren kalitatearen arteko aldea erakutsi zuen; interes handia piztu zuen eta talde teknikoaren lan zehatza eta profesionala argi ikusi zen. Gainera, **N Serieko Orga Elektriko Kontrapisatu** berrien abantailak ere aurkeztu zituen. Hala, bada, **Korrante Alternoko Teknologia** duten orga jasotzaileen eskaintza zabala egiten duen sektoreko enpresa urrien arteko bat da ULMA; horrez gain, biltegiertzeko eta mantentze lanetarako irtenbide integrala ere gero eta modu hurbilagoan eta errazagoan eskaintzen du, Andaluzian, Bizkaian, Katalunian, Erdialdean eta Gipuzkoan kokatutako ordezkaritzek osatutako merkataritza sarearen eta banatzaile sare zabalaren bitartez.

### ULMA Agrícola



**ULMA AGRÍCOLA FIMA 2006 AZOKAN.** Azkeneko urtetan kale egin arren, ULMA Agrícola negozioak Zaragozako FIMA azokan erakusketa jarri zuen 2006ko otsailaren 14tik 18ra bitartean. Bost egunetan, makineriaren munduko produkzioaren erakusketan 1.235 enpresak –565 espainiar eta 670 atzerriar– parte hartu dute, mundu osoko hogeita hamalau herrialdeetatik etorritakoak. 108.000 metro karratu baino gehiago zituen FIMA azokaren 34. edizioan nekazaritzaren merkatuarekin lotutako sektore eta azpisektore guztietako ordezkariak hartu dute parte. Argazkian, Jorge Echegoyen Nafarroako Teknikari Komertziala eta Jesus Astarloa Iparraldeko Teknikari Komertziala.

## BA AL ZENEKIEN...

Martxo bukaeran ULMA Construcción negozioko Zuzendaritza Batzordeak Cristóbal Álvarez negozioko Gerente izendatu zuen, Carmelo Bilbaoren ordezkari; azken horrek bost urtez bete du kargu hori, eta duela gutxi postua uzteko nahia adierazi zuen.



### ULMA Forja


**ULMA FORJA NEGOZIOAK ISO 9001 KALITATE EGIAZTAGIRIA ETA ISO 14001 INGURUMEN EGIAZTAGIRIA BERRITU DITU.** Joan den urtean ISO 9001 Kalitatearen Kudeaketa Sistemaren laugarren berrikuspena eta ISO 14001 Ingurumen Egiaztatzearen lehenengo berrikuspena egin zen ULMA Forja negoziokoan, eta bi kasuetan egiaztatzeak berritu ziren. ULMA Forja negozioa izan zen estatu espainiarrean ISO 14001 egiaztatze lortu duen lehenengo forja lantegia. Gaur egun, ULMA Forja negozioa Comité Forjaiso 14000 batzordeko partaidea da, eta beste forja lantegi batzuk egiaztatze horiek lor ditzaten lan egiten ari da.

### ULMA Packaging

## ULMA Packaging HISPACK 2006 azokan

ULMA Packaging negozioa Bartzelonako Hispack azokan izan zen martxoaren 27tik 31ra, eta berrikuntza ugari aurkeztu zituen bertan. Flow Pack deritzon linean honako hauek aurkeztu zituen: ARTIC familia berria, produkzio altuko elikagaiak atmosfera egokitan (MAP) ontziratzeko; BALTIC familia berria, produktu galkorrak atmosfera egokitan (MAP) ontziratze nahi dituzten ekoizle txikien beharrei erantzuteko; eta FLORIDA eta ATLANTA elektronikoen berriak, ardatzen kontrol elektronikoa Flow-Pack lineako ontziratzeko makinaren eskaintza osora hedatuz. Termozigilatutako dagokionez, bi eredu berri aurkeztu dira, SCORPIUS 400 eta 600 ereduak, erdi eta behe mailako produkzio lineetan ontziratzeko irtenbide automatikoak eskaintzeko diseinatu direnak.

Termoformatutako dagokionez, bi berrikuntza ikus daitezke: alde batetik, MINI 420 ereduaren zabalera 420 mm-ra handitu da; bestetik, SUPRA SKIN ereduaren skin teknologia merkatu zabalagora eramanez nahi izan da, inbertsio maila txikia duten ereduak aplikatuz.



> *Albisteak eta gaur egungo gaiak*



## ULMA Handling Systems negozioaren instalazio

*Joan den martxoaren 24an ULMA Handling Systems negozioaren instalazio berriak inauguratu ziren Oñatin; Joxe Joan González de Txabbarri Diputatu Nagusia eta Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea izan ziren inaugurazio ekitaldian. ULMA Handling Systems negozioko bazkide teknologikoa den DAIFUKU marka japoniarreko lehendakari ordea, Fumio Kobayashi jauna, eta negozioko beste bezero eta laguntzaile batzuk ere bertan izan ziren.*





ULMA Handling Systems

ULMA Packaging

ULMA Forja



**JUAN IGNACIO AGIRRE ETA IÑAKI GABILONDO, ULMA PACKAGING ETA ULMA FORJA NEGOZIOETAKO GERENTE BERRIAK, HURRENEZ HURREN.**

Duela gutxi, Juan Ignacio Agirre ULMA Packaging negozioko Gerente izendatu dute. Juan Ignaciok 49 urte ditu, ezkontuta dago eta 2 seme-alaba ditu. Ingeniari Teknikoa da eta duela 31 urte hasi zen ULMA lanean. Berarekin hitz egin dugu, eta ULMA Packaging negoziarako planteatzen duen proiektu berri-tuaren aurrean ilusio handia erakutsi du; *“Packaging-aren sektoreko talde indartsua izan nahi dugu, dagozkien negozio lineetan lehen mailan egongo diren enpresa espezializatuekin egituraturutakoa, hazkunde koherentea eta jarraitua lortzeko. Bezeroari arreta hurbila eta pertsonalizatua eskainiko dioten filialen sare garrantzitsu baten bitartez nazioartean lehen mailako presentzia- ren aldeko apustua egin dugu. Produktu freskoaren sektoreko liderren maila teknologikoa lortu nahi dugu, berrikuntzaren sinonimo izango dena. Gure proiektuak enpresa berrien sustapena, Enpresa Berrikuntza eta Sustapeneko Zentro Teknologikoaren (UPTC) sorrera, homitzaile espezializatuen sare baten garapena eta inguruko unibertsitateekin lankidetzaren hitzarmenak izango dituzten prestakuntza programak barne hartuko ditu, hala, industri sare koordinatua, packaging-aren sektorean espezializatutakoa, sortu ahal izateko”*. Bestalde, duela hilabete batzuk Iñaki Gabilondo Fernando Recalderen ordezkari izendatu zuten Ulma Forjako Gerente gisa, azken horrek erretiroa hartu baitu duela gutxi. Iñakik 41 urte ditu, ezkontuta dago eta bi seme-alaba ditu, Ekonomialaria da eta Enpresa Zuzendaritzako Masterra (MBA) du Deustuko Unibertsitatean. Duela 10 urte hasi zen ULMA Forja negoziolan lanean, eta lehenago Finantza Zuzendari postua bete zuen. Berarekin hitz egin dugu, eta negozioren etorkizuna nola ikusten duen galdetu diogu: *“Jakina denez, ULMA Forja negozioa petrolioaren eta gasaren sektore energetikoan txertatuta dago, eta hurrengo urteetako aurreikuspenen arabera, etengabe-ko hazkuntza espero da. Horrez gain, kontuan izaten badugu ULMA Forja negozioa bere sektorean munduko liderra dela, etorkizuneko ikuspegia oso positiboa eta itxaropentsua da. Gure esku dago aukera hori baliatzea eta negozioa handitzea. Gure dema handiena merkatuko aldateten arabera egokitzen jakitea da, eta aldateta horiek ahal den azkarren egitea. Une honetan kokapen pribilegiatua dugun arren, ez dugu ahaztu behar kostu baxuko produktuak egiten dituzten herrialdeen –India edo Txina adibidez– mehatxua hortxe dagoela. Banaketaren sektorean lider izaten eta “proiektuen homiketaren” sektorean erreferentzia izaten jarraitu nahi dugu. Horretarako inbertsio produktiboen plan handizale bat dugu (jizkailua independizatzea, brida handien mekanizatua, tratamenduak etab.); horrek, nazioartekotze planarekin batera, hazkundera ekarri behar dugu, eta balio erantsi handiagoko segmentutan sartzeko aukera eman behar dugu, prezioa erabakiak hartzeko faktore bakarra izango ez den segmentutan hain zuzen ere.”*

berriak inauguratu dira



Eguna duela bi urte laneko istripuan hildako Iker Lukasen oroimenez egindako ekitaldi xume eta hunkigarri baten bidez hasi zen. Ondoren ekitaldi instituzionalagoari ekin zitzaion, eta honelakoetan izan ohi den protokoloa erabili zen: ohorezko aureskua, Sabino Zuazabeitia Oñatiko parrokoak instalazioak bedeinkatu zituen gero, zinta mozketak egin zen, eta agintariak euren hitzaldiak egin zituzten. ULMA Handling Systems negozioko azken 18 urteetan egindako “bidaiari” buruzko DVD bat proiektatu zen eta kulturaren integrazioarako antzeppen bat egin zen. OREKA-TX txalapartariak eta Oñatiko Abesbatzak alaitu zituzten ekitaldi horiek. Ondoren, instalazioak bisitatu zituzten eta gonbidatu guztiak agurtzeko koktel bat eskaini zen. Arratsaldean sarrera libreko ekitaldi bat egin zen, eta ULMA Taldeko bazkide guztiek instalazioak bisitatzeko aukera izan zuten.



ULMA Packaging

## ULMA Packaging negozioko bazkide berriei ongietorria

ULMA Packaging negozioak prestakuntza kooperatiboko jardunaldietan parte hartzera gonbidatu zituen bazkide berriak, 104 pertsona guztira, Arrasateko Korporazio Zentroan eta Aretxabaletako Otolara Jauregian. Prestakuntza kooperatibo horren helburua azken hiru urteetan kooperatiboko bazkide egin diren pertsonen integrazio prozesua erraztea izan zen. Prestatzeko eta informatzeko saioretan kooperatibismoaren historiari buruz, bereizten gaituen enpresa ereduaz, gure gizarte organoetaz eta horien funtzionamenduaz, bazkide gisa ditugun eginbeharrez eta eskubideez nahiz gure kooperatibak eta ULMA Taldeak MCC korporazioaren barnean duen tokiari buruz hitz egin zen. Lehenengo esperientzia honek oso balorazio positiboa izan du bertan parte hartu dutenen



aldetik, eta bazkide zaharragoen interesa ere piztu du. Horregatik, 2006. urtean, prestakuntza kooperatiboko saioretara bazkide berriak gonbidatzeaz gain, deialdia prestakuntza kooperatiboa sakondu nahi duten bazkideei ere hedatuko zaie.

ULMA Forja



### OLIOZTATZEKO INSTALAZIO BERRIA ULMA FORJAN.

ULMA Forja negozioak fitting-aren azaleko babeserako instalazioa, fosfatazio prozesu batean oinarritutakoa, aldatu egin du, eta horren ordez olioztatze instalazio berria ezarri du. Erabaki hori arrazoi tekniko eta ekonomikoetan oinarritu da, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak diru laguntza eman dio, irtenbide horrek ondorio onuragarriak dituelako. Aurreko prozesuarekin konparatuta, prozesu berri honek ez ditu produktu arrikutsuak (desugertzeko azidoak eta fosfatoak) erabiltzen, eta beraz, ez ditu hondakin edo gas arrikutsuak sortzen; bestalde, ez du urik isurtzen kolektorera eta ur kontsumoan ere aurrezten du. Pertsonentzat segurtasun handiagoa eta produkzio prozesuaren automatizazio arrazionala bermatuko dituen irtenbide bat bilatu dela azpimarratu behar da.

ULMA Hormigón Polímero

## ULMA Hormigón Polímero-ko Kanalizaziorako Txosten Tekniko berria

Urte hasieran ULMA Hormigón Polímero negozioak "Kanalizaziorako Aurrefabrikatutako Sistemak" Txosten Tekniko berria atera du. Txosten honek 1999. urtetik erabiltzen zuten katalogoa ordezkatu du. Helburua araudi moduan baliagarria izango den tresna erabilgarria eta profesionala sortzea da, Arkitektoarako eta Ingeniaritzako lkerketetarako batez ere. Zazpi hilabete baino gehiago eskaini dizkiote proiektu honi, eta talde lana handia izan da, Produktuko Teknikariek, Ordezkariek, Komertzialek nahiz enpresako beste arlo batzuetako pertsonen parte hartu baitute. Proiektu honetan, jada erabiltzen diren kanalizazio sistemak buruzko informazio teknikoak aurkitzeaz gain, Sistema Tolesgarriari eta S Familia berriari buruzko informazioa ere

aurki daiteke. Drainatze lineal osoa egiteko sistemari buruzko informazioarekin osatu da txostena, eta erabil daitezkeen osagarri guztiei nahiz eskaintako aholkularitza zerbitzuei buruzko informazioa ere jaso da. Txostenaren laburpena hainbat hizkuntzatan aterako da gutxi barru, hala, komunikazio euskarri nagusien eguneratze prozesua osatzeko.



### ULMA Orga Jasotzaileak

## Web orri berria Orga Jasotzaileak negozioarako

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak web orriaren diseinua berritu du, eta eduki gehiago txertatzeaz gain, eguneratu egin du eta elkarreraginerako prestatu du; diseinu argiagoa eta erakargarriagoa egin du, eta nahi den informazioa eskuratzeko eta ULMArekiko harremana modu errazean ezartzeko gonbita egiten du. ULMA Orga Jasotzaileak negozioaren web orri berria –[www.ulmacarretillas.com](http://www.ulmacarretillas.com)– bezeroei nahiz informazio eguneratua jasotzeko interesa duten mota guztietako enpresei ULMAk eskaintzen dituen orga jasotzaile kontrapisatuen (termikoak, elektrikoak edo barrukoak) aukera zabalaren ezaugarri buruzko informazio guztia berehala irisarazteko pentsatuta dago; horrez gain, beste informazio asko ere eskaintzen du: bezeroen esku jartzen dituen zerbitzuak, albisteak, mantentze sektorearekin lotutako



araudiak, bigarren eskuko orgei buruzko zehaztasun guztiak biltzen dituen zerrenda eguneratua eta orga berrien eskaintza bereziak. Web orri berriak hainbat bide iradokitzen dizkio bisitariari, orrian sartzeko izan duen interesari egokien erantzuten dion informazioa lortzeko. Elkarreraginerako biltegiak kontsultak egiteko hainbat bide proposatzen dituen ataletako bat da, eta horren bitartez ULMAk sareko aholkularitza eskaintzen du eta lan bakoitzerako gomendatutako orgaren ezaugarriak eta abantailak aurkezten ditu. Bisitariak bere enpresaren behar zehatzei ondoen egokitzen zaien orgari buruzko informazioa eskura izango du, orga biltegiko zein zonatan erabiliko duen zuzenean aukeratuz, zein lan egingo duen deskribatuz edo orga jasotzailea zuzenean hautatuz.

## BA AL ZENEKIEN...

ULMA Taldeak Mundumira jaialdian, Euskal Herria aldirikariak antolatuta datorren maiatzaren 26, 27 eta 28an Oñatin egingo den munduko kulturen jaialdiaren aurtengo edizioan, parte hartuko du. Hiru egunez jarduera ugari koloreztatuko eta girotuko dituzte Oñatiko kaleak: antzerkiak, hitzaldiak, kontzertuak, erakusketak eta beste hainbat ekitaldi izango dira.



### ULMA Agrícola

## ULMA Agrícola negozioa 14 Hako instalazio bat ezartzen ari da Mexikon

ULMA Agrícola negozioa hainbat proiektu garrantzitsu gartzentzen ari da Mexikon. Une honetan Mexikon finkatu zenetik egin duen instalaziorik osatuenetako bat amaitzen ari da. Berotegiak Multikapera Gotikoak dira, G8 ereduak, eta 4.5 metroko altuera dute kanal azpian; goitikako argiztapen sistemak tximeleta ereduak dira, eta alboetakoak eta aurrekoak bilgarriak dira. Aireztapen sistema guztiek motorra dute eta afidoen kontrako 10x16 eta 16x20 neurriko sareekin babestuta daude. Instalazio



hauek nabeen barnean klima kontrolatzeko hainbat ekipamendu dituzte: haizezko kamera, aire beroko berogailua, airearen birzirkulaziorako sistemak eta hezedura sistemak. Instalazio hau Michoacán estatuan kokatuta dago, eta 12.280 m<sup>2</sup>-ko 10 modulu eta 11.040 m<sup>2</sup>-ko beste bi modulu ditu. Guztira 144.800 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen du (Anoeta bezalako 20 estadiori dagokiona). Instalazioa barazkien landaketara zuzenduko da, eta nagusiki tomatea landuko dute.



**“Mondragon Unibertsitateak  
erreferentziazko unibertsitate  
izan behar du Euskal Herrian”**

Inaxio Oliveri Mondragon Unibertsitateko errektorea da. MCCren barneko unibertsitate hau XXI. mendeko enpresek dituzten benetako beharrekin bat datorren prestakuntza eskaintzen duelako nabarmendu da. Europako eszenatokitik datozen aldaketetara –Boloniako Adierazpena deritzon biltzean bildu dira– moldatu ez ezik aldaketa horiei aurrea hartu dien unibertsitate honek norantz jo duen azaldu digu Oliverik.

**Mondragon Unibertsitatearen ezaugarri nagusietariko bat MCCko kooperatibekin duen harreman estua da. Nola gauzatzen da enpresa sare horretara gerturatzeko hori?** Harreman estua dugu, gu ere Taldekoak garelako. MCCk parte hartzen du zuzendaritza organoetan, eta horrek hurbiltasun hori areagotu egiten du, bi noranzkoetan: unibertsitatearen enpresara, eta enpresatik unibertsitateara. Beste unibertsitate batzuek organo bereziak behar izaten dituzte enpresarekin harremanak bideratzeko; baina gurean bien arteko sinbiosia oso modu naturalean gauzatzen da, eta gure kulturaren parte da.

**Nola jabetzen dira ikasleak harreman horretaz?** Praktiken eta karrera amaierako proiektuen bidez, batez ere.

**Harreman hori MCCko kooperatibetara mugatzen da, ala zabalagoa da?** MU soilik MCCrako profesionalak prestatzen aritzen dela esatea errealitatearekin bat ez datorren topikoa da. 300 enpresarekin baino gehiagorekin ari gara lanean, eta horietatik erdiak, gutxi gorabehera, ez dira kooperatibak. Gure ikasleek ez dute lana soilik kooperatibetara aurkitzen, % 60 kooperatiba ez diren enpresetara doa. MUK oso zerbitzu zabala eta estrategikoa eskaintzen dio euskal gizarte osoari.

**Zer harreman ditu MUK ULMA Taldearekin?** Oso gertuko kolaboratzailea da, eta garrantzi handia du. Eteoko (Enpresa Zientzien Fakultatea) zuzendaritza kontseiluen eta MUKoen bidez harreman instituzionalak ditugu. Gainera, karrera amaierako proiektu asko ULMArekin egiten dira; eta gainera, gure ikasleentzako asko enpresa horretan hasten dira. ULMAk fondoekin parte hartzen du, bai FEPIren bidez eta baita beste ekarpen berezi batzuen bidez ere.

**Aspaldi honetan asko hitz egin da Boloniako Adierazpenaren inguruan. Zer eragin izango du Europako unibertsitate esparru berriak unibertsitateetan eta, zehazki, MUK?** Boloniako prozesua oso abegarria izan daiteke oro har unibertsitateentzat. Gu bide onetik goaz, izan ere, jada 2000. urtean egin genuen gogoeta estrategikoa txertatu baino lehen. Europar Batasunak unibertsitateei planteatzen dizkien eskakizunekin zerkusi handia du Boloniak: graduiko ikasketak eta graduatu ondokoak ondoz ondo planteatzen dituen prestakuntza-egitura; eta ikaslea ikastera ez ezik jakintzaren jabe egitera eta berori ondo erabiltzera bultzatuko duen prestakuntza eredua.

**Deslokalizazioa eta globalizazioa ohiko industria enpresa kooperatiboetan aldaketak eragiten ari diren fenomenoak dira. Fenomeno horiek ba al dute oihartzunik fakultateetako prestakuntza planetan? Hitz egiten al da beroriei buruz ikasgeletan?** Prestakuntzaren arloan atzerriko hizkuntzak jakitean sumatzen da hori gehien, eta irakaskuntza hirueledunari eta nazioarteko harremanei esker gertatu da hori. Zenbait ikasleek bigarren zikloak atzerrian egiten dituzte, eta gero eta ikasle gehiago bultzatzen dira praktikak edo karrera amaierako proiektuak atzerrian dauden enpresetan egitera.

**Graduatu ondoko ikasketek gero eta garrantzi eta pisu handiagoa dute unibertsitateetan eta ikaslearen curriculum ibilbidean bertan. Nola egiten dio aurre MUK epe labur eta ertainera xede horri?** Titulazioak diseinatzen nola ari diren ikusita, ikasleak gero eta aukera zabalagoa izango du prestakuntzak eskaintzen dizkion ibilbideen artean, prestakuntzaren zeharkako izaera gero eta nabarmenagoa izango

baita. Gradua lanbidean aritzeko prestakuntza elementu izango da, eta gero, graduatu ondoko ikasketetara edo doktoregora jotzeko aukera izango da. Desberdintasun nabarmenak graduatu ondoko ikasketak sendo ofizialtzea eta ikasleak bere lanbide garapena planteatzerakoan izango duen malgutasuna dira. Eusko Jaurlaritzak jada onartu dizkigu MUKo bertako graduatu ondoko lau ikasketak mota, eta guztira zazpi Master izango dira, Ingeniaritzaren, Enpresa Kudeaketa aurreratuaren, Kooperatiba eta Gizarte Ekonomiaren eta Hezkuntzaren esparruetan.

**Gaur egun gazteak hobeto prestatuta daudela esaten da, baina zer egin dezakegu gazteak are hobeto prestatzeko?** Aurreko belaunaldiak baino hobeto prestatuta daude, gaitasun generikoak modu sistematikoan gero eta hobeto garatzen direlako.

**Azkenik, nora joko du MUK datozen 10 urteetan?** Euskal Herrian erreferentziatzeko unibertsitate izan behar dugu gure jakintza esparruetan, eta proiektu berezia eskaini behar dugu, eremu teknologikoan, enpresa kudeaketan eta Hezkuntza Zientzietan espezializatutako geure unibertsitate eredua osatuz; geure prestakuntza estrategia bereziki, enprekin eta erakundeekin harreman estuak izanez, eta enplegua aurkitzera eta nazioartera zuzenduta.



*“Oraingo gazteak aurreko belaunaldiak baino hobeto prestatuta daude, gaitasun generikoak modu sistematikoan garatzen direlako”*

# “Lanik onena? etengabe ikasten jarraitzeko aukera ematen dizuna”

Mondragon Unibertsitateko 4. mailako lau ikaslerekin bildu gara lan-munduan sartzeari aurre nola egiten dioten jakin nahian. Jakin dugu lanean hasteko irrikan daudela laurak; baina, oro har, ez diote inolako garrantzirik ematen beraien lehen enpresa kooperatiba izateari ala ez. Beste lehentasun batzuk dituzte: lankideekin giro ona izatea eta etengabe ikasten jarraitzea ahalbidetuko dien lanpostu sortaile bat izatea, hain zuzen.

**Laster bukatuko dituzue ikasketak. Zein da zuen asmoa bukatzen duzuenarako, berehala lanean hastea edo ikasten jarraitzea?**

>> **Maddi Gaztañaga (M.G.):** Nire asmoa da, ikasketak behin bukatuta lanean hastea; beharbada, hizkuntzak edo zerbait ikasten jarraitu, baina lehenengo lanean hastea.

>> **Mirari Oñaederra (M.O.):** Beharbada, Masterren bat ikastea, baina lanean ari zaren bitartean. Eta hizkuntzak ere bai, hainbat enpresatan aukera ematen dizute hizkuntzak ikasteko.

>> **Edurne Gonzalez (E.G.):** Lanean jarraitzea, ni dagoeneko hainbat enpresatan lanean jarduten naizelako. Beharbada ingelesa gutxika-gutxika ikasten joatea, baina lanean ari naizen bitartean. Beranduago, Masterren bat ere egiteko asmoa badut, beharra ikusten badut, behintzat, eta CAP-a, “Curso de Adaptación Pedagógica” delakoa.

>> **Ander Ubera (A.U.):** Goi-mailako ingeniaritza egiteko asmorik ez daukat. Asmoa izango zen, behin bukatuta, lanean hastea. Eta ingeles-maila hobetzea, beharbada.

**Enpresekin harremanetan hasteko eta lana bilatzeko, zein izaten da erabiltzen duzuen metodologia edo prozedura?**

>> **A.U.:** Karrera-amaierako proiektua egiten ari zaren bitartean, hainbat enpresarekin harremanetan hasten zara. kontaktu hauek askotan oso baliagarriak izaten dira.

>> **E.G.:** Bai, praktikek eta proiektuek asko laguntzen dute. Egiten baduzu Master bat, ikasten dizuna baino, gehiago balio dizu Master horren bukaeran enpresaren batean egiten duzun proiektua. Beste aukera da curriculumarena. Badaude, baita ere, Langai, Adegilari eta horrelakoak, lana bilatzen laguntzen dituzten zerbitzuak. Eta jendea ezagutzea oso

garrantzitsua da; jendea ezagutzea eta jende horrek zu lanik gabe zaudela jakitea.

>> **M.O.:** Proiektua eta praktikak. Entxuferen bat izateak ere asko laguntzen du eta zorte ona izateak. Egotea toki egokian une egokian, bajaren bat kubritzea, esate baterako.

>> **M.G.:** Bai, ados nago beste iritziekin, proiektua da garrantzitsuenak.

**Esan ohi da Mondragon Unibertsitatea oso lotuta dagoela enpresekin; enpresen beharretara egokitzen dela, eta lanean hasteko prestatzen dizula. Ados al zaudete baieztapen honekin?**

>> **A.U.:** Ni diseinu arloan ari naiz, eta konturatzen zara unibertsitateetik proiektuak eskatzen dituztela eta lan-eskaera badagoela; hau da, ikusten da unibertsitatea etengabe enpresekin harremanetan dagoela.



>> **E.G.:** Bai, proiektuen bidez gauzatzen da enpresekin lotura hori. Baina uste dut gehiegi lotzen dela harreman hori kooperatibekin, eta hauek geografiko-ki inguru jakin batean kokatzen dira, Debagoienan, batez ere. Zein lekutan bizi zaren kontutan hartuta, horrek asko muga zaitzake. .

**“Gure lehen enpresa kooperatiba izateari ez diogu garrantzirik ematen”**

giro batean, non zure balioa erakuts dezakezun. Hasierako urteetan arlo ekonomikoari ez diot hainbeste garrantzirik ematen. Kooperatiba izateak ez dit axola, beharbada kultura hori ez dudalako gehiegi bizi.



**Edurne Gonzalez (EG)**  
Humanitateak-Enpresako 4. maila eta langilea  
21 urte



**Maddi Gaztañaga (MD)**  
Industri Ingeniaritzako 4. mailan  
21 urte



**Ander Ubera (AU)**  
Industri Diseinuko proiektua egiten  
26 urte



**Mirari Oñaederra (MO)**  
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako (Finantzak) 4. mailan. 22 urte

>> **M.O.:** Bai, ados nago Edurnerekin. Kooperatibismoa batez ere Arrasate inguruan bizitzen da; ni, Debakoa izanda, ez dut asko bizi kooperatibismoa.

>> **M.G.:** Debagoienan enpresa garrantzitsu asko dago, baina gero beste eskualde batzuetatik hona egunero etortzeko kristoren zailtasunak daude, garraio aldetik eta.

>> **A.U.:** Faktore hauek asko baldintzatzen dute zure lan-bizitza planteatzeko orduan.

>> **M.G.:** Esate baterako, Ordiziatik Arrasatera autobusean etortzeko, lehenengo Bergarara joan behar duzu, eta han beste autobus bat hartu; nahiz eta bakarrik 40 kilometroko distantzia egon.

>> **M.O.:** Hala ere, mugitu beharra dago. Ezin zara geldirik egon.

**Lanpostu bat bilatzeko orduan, zeintzuk izango lirarteke zuen lehentasunak: kooperatiba edo Elkarte Anonimoa izatea; kokapen geografikoa; lanpostua bera; soldata...**

>> **M.G.:** Nik kooperatiba izateari ez diot garrantzirik ematen. Lankideekin harreman ona izateari garrantzi handia ematen diot eta neska izateagatik tratatu desberdina ez izateari. Etxetik ahalik eta gertuen eta lan interesgarria izatea, ez aspergarria. Eta nik ikasitako esparru barruan egotea, noski.

>> **M.O.:** Ikasteko eta ikertzeko aukera ematen duen lana izatea; eta arlo ezberdinetan jardutea, konfiantzazko

>> **EG.:** Egunero lanera gustura joatea. Hasiera batean, lanari berari soldadari baino garrantzi handiagoa emango nioke.

>> **A.U.:** Beharbada, oraindik ez naiz oso kontziente kooperatiba batean lan egiteak zer suposatuko lukeen. Oraingoz, berez, hori ez zait inporta. Diru kontua, nahiz eta batzuek espresuki ez



**“Neska izateagatik gehiago demostratu behar duzu”**



esan, uste dut denoi inporta zaigula. Honetaz gain, gauza berriak egitea, ez ematea denbora guztia ariketa monotono batean. Ikasteko aukera izatea ere funtsezkoa da.

>> E.G.: Ikasitakoa garatzen joatea eta praktikan jartzeko aukera ematen dizun lan bat izango zen ideala.

>> M.G.: Eta lan kreatiboa izatea, zentzu zabalean.

>> A.U.: Bai, ezen gaur egun oso erraza da atzean gelditzea, etengabe gauza berriak irteten ari dira-eta.

**Maddik aipatu du sexismoaren gaia. Oraindik sentitzen duzue gutxiago baloratzen dela zuen lana emakumezkoa izateagatik?**

>> M.O.: Neskak oraindik zailtasunak ditugu, bai. Hori Marketinaren alorrean nabaritzen da, nik oraindik ez dut ezagutu komertzial lanak egiten duen neskarik.

>> M.G.: Esaten dute nota hobeak ateratzen ditugula, sentsibiltatea desberdina dugula... baina, azken finean, aukera gutxiago dugu. Neska izateagatik

gehiago demonstratu behar duzu, hori argi dago.

>> E.G.: Bai, eta zenbat emakumezko daude zuzendaritzako postuetan, MCC-n, esate baterako?

**Eta geografikoki, zer nahi duzue, zuek bizi zareten inguruan gelditzea?**

>> A.U., M.O., E.G.: Printzipioz, bai.

**Ez zinatekete atzerrira joango?**

>> M.G.: Ez litzateke gaizki egongo kanpora edo atzerrira joatea sasoi labur batez, baina gero Euskal Herrira bueltatzeko asmoarekin.

**Aspaldi honetan asko eztabaidatzen ari da kooperatibismoaren balioak galtzen ari direla; globalizazioa, deslokalizazioa eta beste faktore batzuk direla medio, gauzak asko aldatzen ari dira. Nola ikusten duzue eztabaida hau, ados zaudete?**



**“Ez dugu bizi kooperatibismoaren kultura”**

>> E.G.: MCC barruan konturatu dira balioak galtzen edo aldatzen ari direla, eta hausnarketa sakona ari da zabalitzen honen inguruan. Partaide izatearen sentimenduak ez dauka orain 10 edo 20 urte zuen indarririk. Deslokalizazioa dela eta, hemen kooperatiba dena, Brasilen enpresa kapitalista izango da. Askotan, teorian esaten dira gauza batzuk, baina gero barruan zaudela, beste gauza batzuk ikusten dituzu.

>> M.O.: Hori esaten da, beste enpresa moten gero eta antz handiagoa duela, baina ez dut ezagutzen asko gai hau.

>> A.U.: Oraingoz ez daukagu irizpide asko gai hauek baloratzeko.

>> E.G.: Guk, HUHEZIn lantzen ditugu gai hauek; esaterako, “Kooperatibismo eta enpresa-kultura berria” izeneko asignatura daukagu. Sistema bezala, kooperatibismoa oso ona da, baina oso enpresa handietan uste dut zailtasunak daudela eredu kooperatibistari eusteko. Testuinguruak aldatzen doaz, eta kooperatibek orain arte beti jakin izan dute garai berrietara egokitzen; ikusiko dugu oraingoan zer gertatzen den. Gakoa da kooperatiba izanda lehiakor izaten jarraitzea testuinguru berri batean.



**“Ez dugu  
gure burua  
prestatuta  
ikusten  
enpresa bat  
sortzeko”**

>> **A.U.:** Bai, gutxi izanda, errazagoa da bat eginda egotea.

#### **Nola ikusten dituzue, oro har, Euskal Herriko enpresak?**

>> **A.U.:** Industri diseinu arloari enpresek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote. Italian eta Frantzia aspalditik dator diseinuaren kultura, hemengo enpresak orain hasi dira konturatzen hutsune bat zutela arlo honetan.

>> **E.G.:** Pertsona dela garrantzitsuena betidanik izan da kooperatiben filosofia, orain mota guztietako enpresak ari dira filosofia hau inplantatzen. Kooperatiba leku ona da lan egiteko, daukan kultura humanista honengatik.

>> **M.O.:** Nire ikasketekin irteera asko ikusten ditut: banketxeetan, enprezetan, administrazioan. Ez dut zaila ikusten lana bilatzea.

#### **Eta ez al daukazue zuen enpresa propioa sortzeko asmorik?**

>> **E.G.:** Bai, nik badaukat proiektu bat erdi landuta nire enpresa sortzeko; ziur aski kooperatiba izango da, gainera.

Gustatzen zait nik sinesten dudan proiektu batean lan egitea.

>> **A.U., M.G.:** Printzipioz, eta hasiera batean behintzat, ez. Ez dugu gure burua prestatuta ikusten. Hasiera batean, ikasteko, beste baten enpresa batean, hobeto.

>> **M.O.:** Ideia berezi bat izanez gero, beharbada, aurrerago bai.

#### **Enpresa berri bat sortzea erraza izaten da? Unibertsitatean bertan edo beste erakunde batzuetatik laguntzen al dizuete?**

>> **E.G.:** Laguntzak badaude, hor dago Saiolan, CEI-Berrilan...

>> **M.G.:** Unibertsitatean prestatzen zaituzte lanean hasteko, baina enpresa bat sortzeko, ez.

>> **M.O.:** Entzunda daukat ESTEn gehiago animatzen zaituztela enpresa berri bat sortzera, hemen baino.

>> **E.G.:** Gu animatzen gaituzte enpresa propioa sortzera; etorri ziren sustatzaile batzuk euren kasuak kontatzen eta animatzera enpresa propio bat sortzeko.

>> **M.G.:** Ingeniaritzan ez zaituzte bereziki prestatzen enpresa propioa sortzeko; beharbada, Enpresa Zientzietan eta beste ikasketa batzuetan, gehiago.

#### **Azkenik, ezagutzen al duzue ULMA?**

>> **A.U.:** Izena besterik ez.

>> **E.G.:** Badakit negozio pila bat daudela ULMA barruan.

>> **M.G.:** Nik lehenengo hiru ikasturteak Goierriin egin nituen eta ez ditut ezagutzen hemengo enpresak.

< >

**“Soldatari baino,  
garrantzi handiagoa  
ematen diogu  
lanari berari”**

< >


**“Debagoienean enpresa  
garrantzitsuak daude,  
baina komunikazioak  
oso eskasak dira”**

< >

**“Garrantzitsuena  
egunero lanera  
gustura joatea da”**

< >

**“Lan sortzaile bat  
nahi dugu”**



## PRECINOX, ULMAren jarduera berria

Taldearen enpresa eskaintza berri hau ULMAko Sustapen Politikaren baitan txertatzen da. *POGU* IIIak dioenez, *etorkizuneko dema kooperatibetan enplegua sortzea eta mantentzea da, gure inguruaren garapenera egokituta*. Horregatik, Enpresa Sustapena izan da ULMAren balio nagusietako bat, funtsean, negozioetako sustapen planak bultzatuz eta plan horiei baliabideak eskainiz nahiz modu proaktiboan onartuz. Hortxe sortu zen gaur egungo errealitatea: PRECINOX.


# ESKAINTZA BERRI HONEN ZERGATIA

Serie laburretarako altzairu herdoilgaitzean egindako doitasunezko galdaragintza oso urria da, eta eskaintzen duen akaberako kalitateak ez die sektorearen gero eta exijentzia handiagoi erantzuten. Horregatik, eta arazo hau areagotu egiten delako elikagaien industriaren sektorerazuzendutako eta egituraren aldetik konplexutasun handiagoa duten pieza diskretuak (makinen bankadak, garraiatzeko elementuak, dosifikagailuak) direnean, ULMA merkatu horretan sartu da. Kontuan izan behar dugu elikagaien sektoreko enpresek produktu seguruaren aurrean duten sentikortasunak aldaketa garrantzitsua ekarriko duela Packaging-aren sektoreko ekipoen eta instalazioen diseinu kontzeptualean, gaur egun sektore hori ez baitago oso ondo prestatuta. Horrez gain, elikagai freskoen prozesatzea eta ontziratzea zentralizatzeko joera dago gaur egun, eta horren ondorioz ontziratzeke zentral handiak, produkzio bolumen handiak dituztenak, sortu dira; zentral horiek prozesuan dagoen produktuaren barne fluxuen kudeaketarako irtenbideak nahiz banaketarako kudeaketa logistikoa (biltegi automatikoak) eskatzen dituzte. Industria hauek kutsaduraren kontrako produkzio sistema fisikoak eskatzen dituzte, behar bezala landutako eta tratatutako altzairu herdoilgaitza protagonista izango dutenak. Galdaragintzaren prozesua menperatu denean eta kutsaduraren kontrako Know How diseinua garatu denean Packaging-arekin eta Handling Systems-ekin lotutako jarduera berriak lantzen has gaitzke, hala nola IFS jarduerak, dosifikagailuak, jariakinen kudeaketa etab. Packaging-aren gaur egungo negozioarako funtsezkoa da altzairu herdoilgaitzeko piezetan eta osagaietan berme osoa duen eskaintza bat izatea, hala, kalitatean nahiz produktuen banaketan eta kostuetan lehiakortasuna hobetzeko. Elikagai freskoen sektoreetan produkzio unitarioak beharrezkoak dituzten proiektu berezien (C proiektuak eta Ingeniaritzakoak) hazkundeak jarduera horren hurbiltasuna eta kontrola gomendatzen du.

- Altzairu herdoilgaitzeko osagaien fabrikazio prozesua (galdaragintza eta mekanizatua) arrakastarako faktore kritikoa da ULMA Packaging negoziolan.
- Kopuruari eta, batez ere, kalitateari (HIFA) dagokienez dagoen erantzun falta lehiakortasuna mugatzen duen faktorea da ULMA Packaging negoziolan hazkunderako eta garapenerako.
- Gure inguruan eskaintza urria da bai kalitateari eta bai kopuruari dagokienez.
- Kopuruaren eta kalitatearen eskaera gero eta handiagoa da Packaging-aren negoziolan, hornitzaile bakar batean gehiegi zentratzen da, eta ondorioak ditu horrek prezioetan eta banaketan.
- Oinarrizko hornitzailea da ULMA Packaging negoziolarentzat (espezializazioa, malgutasuna, hurbiltasuna).
- Akaberari eta USDA (diseinu higienikoa) irizpideak txertatzeari dagokienez egiten diren exijentziak alderdi kritikoak dira elikagai freskoen Packaging-aren merkatuan kokatzeko.
- Prozesua menperatzen bada eta HIFA kontzeptuari eta USDA exijentziei erantzun egokia ematen baldin bazaie, negozio berriak (Flow Systems, dosifikagailuak, elikaduraren industrian espezializatutako hornitzailea) garatzeko aukera dago.
- Merkatu garrantzitsua da ULMA Taldearen barnean (Packaging eta Handling Systems), Eskaintzaren irteera eta finkatzea erraztuko duena.
- Enplegu kualifikatuaren sorrera inguruan.

## ZEIN IZANGO DA PRODUKTUA?

Elikagaiak prozesatzeko sektoreetan lortutako espezializazioan oinarrituta bi produktu mota garatuko lirateke: *altzairu herdoilgaitzeko doitasunezko osagaiak*, altzairu herdoilgaitzaren doitasunezko lanetan eta sektore horretan espezializatutako hornitzaile baten eskaintza gisa; bestalde, prozesu honen menderakuntzan eta sektore horrek eskatutako eraikuntza irizpideetan oinarrituta, *barne fluxuen kudeaketarako (IFS) elementu modularren gama bat* garatuko litzateke.



### NEGOZIOA BI FASETAN GARATUKO DA:

Lehenengoan altzairu herdoilgaitzean egindako doitasunezko galdaragintzako jarduerara garatuko litzateke, elikagai freskoen, elaboratuen edo aurrez prestatutako enbalduraren sektoreetan espezializatutakoa (higiene eta osasun exijentziak eta USDA araudiak) eta hornitzaileen industriaren txertatutakoa (jarduera hau hiru urtetan finkatzea espero da). Galdaragintza prozesua bera menderatzen denean (zehaztutako espezialitatean), IFS (barne fluxuak kudeatzeko osagaiak) jarduera garatzen hasiko litzateke, elikagai freskoak prozesatzeko sektoreetan eta, zehazki, haragiaren, hegaztien, arrainen, barazki eta fruituen eta aurrez prestatutako elikagaien sektoreetan espezializatutakoa (jarduera hau bost urtetan finkatzea espero da). Eskaintza berria, azken fasean, Ingeniaritzako jardueraren "giharra" izango litzateke, eta ULMA Packaging-en funtsezko hornitzaile.

### JARDUERAREN ALDAGAI ETA AZPIEGITURA NAGUSIAK

Jarduera Legazpin (Gipuzkoa) garatuko da eta 12.000 m<sup>2</sup>-ko instalazioa ezarriko da; horietatik, 10.400 m<sup>2</sup> fabrikaziora zuzenduko dira eta gainerakoa bulegoetara eta zerbitzuetara. Hasiera batean instalazioen zati bat une honetako muntaketa linearen bat kokatzeko ere erabiliko da. Fabrikazioak bi gune izango ditu: osagaiak fabrikatzeko gunea eta muntaketaren gunea. Inbertsio garrantzitsuenei dagokienez, honako hauek dira: laser bidez ebakitzeko makina, CNC tolesteko makinak, biltegi automatikoa,

CNC mekanizazio zentroak, zenbakizko kontrola duten tornuak, pasibatze instalazioa. 2006ko apirilean hasiko dira instalazio hauek eraikitzen eta jarduera 2006. urte amaieran hasiko da.

#### Batez besteko langile kopurua 2010. urtean:

- Ingeniari teknikoak: 10 pertsona
- Erdi mailako teknikariak: 55 pertsona

#### 2010ean aurreikusitako salmentak: 11 milioi €



### "Packaging-a aukera pentsaezinak ematen dituen esparrua da"

"Precinox duela lau urte abian jarritako proiektua da, ULMA Packaging negozioaren plan estrategikoen emaitza. Azkeneko urtean proiektua umotu da eta ULMA Packaging negozioan eta Taldeko erakunde eskumendunetan onartu den agiri bat prestatu da. Proiektu honek ahalegin handia eskatzen du, baina emaitza garrantzitsuak sortuko ditu, gauzak ondo egiten direnean gertatzen den bezala. Proiektuan ilusioa jarriko duen langile adituen laguntza funtsezkoa izango da. Horretarako, proiektua eta ilusioa egunegun eta langilez langile transmititu beharko da, emaitzak egia bihurtu arte. Une honetan dugun proiektuak bost urteko epea duen arren, epe labur batean beste aukera batzuk aztertzea eta horien aldeko apustu egitea espero dugu; izan ere, packaging-aren inguruan (ontziratze prozesuen automatizazioa, barne garraioko fluxuak etab.) aukera pentsaezinak baitaude. Konpara ditzagun, bestela, automatizazioan aurreratuago dauden beste sektore batzuetako (automozioa, linea zuria etab.) automatizazio mailak eta une honetan packaging-aren sektoreak dituenak, eta negozioak duen aukera handiaz jabetuko gara."



FERNANDO GOROSTIDI. Precinox-eko zuzendaria

# gutarren argazkiak eta historiak

**Mario Garciak, Ulma Forjako bazkidea, Lor-ekin batera, zortzi urteko bere txakur emea, artzai alemaniar arrazakoa, Euskadiko Salbamentuko Txakur Taldean parte hartzen du. Animalia honen zeregina hondamendi natural batek utzitako hondakinen artean harrapatuta gelditu direnak, galdutakoak edota txakurraren usaimena eta sena erabiltzea eskatzen duen muturreko egoera batean daudenak aurkitzea eta egoera horietatik ateratzea da. SOS Deiak larrialdi zerbitzuetako boluntarioen talde batean betetzen dute beren zeregina Mariok eta Lorrek.**

Mario eta Lor gehienez Euskal Herrian aritzen dira, baina batzuetan beste autonomia erkidego batzuetara ere jo izan dute erreskate lanetan laguntzera, bai senitartekoek hala eskatu dietelako, edota baita autonomia erkidegoko gobernuak eskatu dietelako ere; halaxe egin zuten, adibidez, Biescasen (Huesca), Santanderko Hotel Bahian, Picos de Europa mendietan eta beste hainbatetan. Atzerrian gertatu diren hondamendi larrietan laguntzeko ere deitu izan diete behin baino gehiagotan (duela gutxi, adibidez, Pakistango eta Salvadorko lurrikaretan laguntzeko deitu diete), nahiz eta, azkenean eta taldetik kanpo gelditzen diren arrazoiengatik, ez ziren toki horietara joan. Oraingoan, Mariok eta Lorrek ez dute inor bizirik aurkitzeko suerterik izan, baina parte hartu izan dute norbait bizirik aurkitzea lortu den erreskate lanetan. *“Erreskatearen munduan dabilen edonorentzat horixe da bizi dezakeen gauzarik ederrenetarikoa”,* dio Mariok. Mariok bere boluntario lanaren inguruko pasadizo ugari ditu gogoan. *“Gogoan dut, behin, 84 urteko gizon bat, diabeteduna, Soduperekin muga egiten duten mendi batzuetan galdu zela. Gizonak ia bi egun egin zituen mendian galduta, eta oso eguraldi txarra egiten zuen: euria, hotza, harria etab.; gainera, ez zeukan jantzi egokirik edo babesgarririk. Egun hartan, bizirik aurkitu genuenean, ezagutzen ez gintuen norbaitentzat garrantzi handiko zerbait egin genuela pentsatuz joan ginen etxera, pozik”.* Hala ere, salbamendu lanetan izaten da une gogorrik ere. *“Erreskate baten unerik gogorrena bila gabiltzan pertsona edo pertsonak hilda aurkitzea da. Gainera, zenbat ordu pasatu diren edo gorpua nola dagoen kontuan hartuta, gauzak asko aldatzen dira. Ni gehien hunkitu nauena zere izan zen: nire txakurrak behin desagertuta egun batzuk zeramatzan gizon bat seinalatu zidan; hilda zegoen. Gainera, une horretan biktima dagoen tokiraino joan behar duzu, txakurrak zer aurkitu duen ikusteko. Finean, horixe da gure lanaren alderdirik desatseginena”.*



Iruditan, Mario García Lor txakurra entrenatzen.

**Mario García.**  
**ULMA Forja negozioko bazkidea.**

# Elkartasunean inbertitzea da, horix

Aldizkariaren zenbaki honetan atal berri bat zabaldu dugu: "Gure konpromisoa". Beronen bidez, **ULMA Taldeak duela gutxi jaio den ULMA Fundazioaren bidez sustatuko dituen jarduera sozialen berri eman nahi dizuegu. Erakunde horren helburua gizarte ekonomia sustatzeko ekintzak eta hezkuntzaren, kulturaren edo laguntzaren esparruko jarduerak bultzatzea eta babestea da. Laguntza horien bidez, **ULMA GKE** motako hainbat erakunderekin ere parte hartzen du. Lehenengo erreportaje honetan, **Vicente Ferrer Fundazioa, Indian behartsuenekin lan egiten duen GKE** motako erakunde hori, gertuagotik ezagutu nahi izan dugu; izan ere, azken urte hauetan **ULMA Taldea** elkarte horri laguntzen ari da.**

## ULMAk

### Vicente Ferrer Fundazioa babesten du

Indiako lurralde pobre eta behartsuenetariko bat, Anantapur, eta munduko komunitate baztertuenetariko bat, dalit edo ukiezinen komunitatea, bizitzen ari diren aldaketa prozesuan laguntzeko konpromisoa hartu duen erakunde da Vicente Ferrer Fundazioa (FVF). Gaur egun erakunde honen lana 1.550 herritara iristen da, eta bi milioi pertsonari baino gehiagori laguntzen dio. Pertsonengan, pertsonen jardunbidean eta aldatzeko aukeretan uste osoa duen erakunde da FVF. Lidergoan erakutsi duen gaitasunari eta filosofia ekintzaile eta gizatiarrari esker, lan egiteko modu eredugarriak eskaini ditu Nazioarteko Lankidetzaren esparruan. Vicente Ferrer 1969an hasi zen lanean Anantapur barrutian, eta lehenengoetarikoa izan zen Indiako bigarren lurralde lehorrenaren garapen integrala bultzatzen. FVF bi taldek osatzen dute: espainiarra bata (FVF) eta indiarra bestea (Rural Development Trust deritzona). Ez da boluntarioen talde bat, inguru horretan lanean 30 urte baino gehiago daramatzan profesionalen erakunde bat da. FVF sei arlotan bereizita dagoen garapen plan batean ari da lanean, eta hauek dira arlo horiek: hezkuntza, osasuna, emakumea, ekologia, ahalmen urrikoak eta etxebizitza.

#### ETXEBIZITZAK ETA BIZIARTEKO PENTSIOAK

ULMA Fundazioa 2004tik ari da FVFri laguntzen, eta egiten duen ekarpen ekonomikoak ahalmen urrikoentzako etxeen eraikuntza eta biziarteko pentsioak sustatzen ditu. Horrela, azken ekitaldian ULMA Fundazioak egin duen ekarpenari esker, Rayadurg inguruan dagoen Gummagatta herrian egokitutako etxe bat eraiki da, eta jada pasatu da onuradunaren eskuetara, Sidapparen eskuetara, hain zuzen; gainera, Uravakonda lurraldean, Marutla herrian, Siddaiah-ri pentsio bat esleitu zaio. Etxea egiteko lanak 2004an hasi ziren, eta 2005ean amaitu ziren. Adreiluen hornikuntzan izan ziren arazo batzuek lanak atzeratzea eragin zuten, baina herrixka osoak esku hartu zuen, eta horri esker arazoak berehala konpondu ziren. Biziarteko pentsioa jasoko duen ahalmen urriko pertsona aukeratzeko prozesuari dagokionez, berriz, komunitateko shangam-ean kontsulta egiten da, eta honek bertako kideen artean behar handienak dituztenak proposatzen ditu. Onuraduna, Siddaiah, 52 urteko gizonezkoa da, itsua, eskolagabea, eta umezurtza ume-umetatik. Honen gurasoek ez zeukaten jabetzarik, eta senideak arduratzen dira beretaz.



Umeak. (Quim Botey)



Emakumeen taldea. (Rubio-Rodés)

# e baita ULMA Fundazioaren xedea



Gormutuen zentroa--Bathalapalli. (Chené Gómez)



Laboreak-Kundurpi. (Rubio-Rodés)

## FVF-REN LANA, ZENBAKITAN

**Hezkuntza:** 1.600 eskola sortu ditu, eta 2.067 irakasle ari dira lanean berorietan; 94.891 ikasle ditu Lehen Hezkuntzan (2005-06 ikasturtean, mutilen % 98 eta nesken % 98); eta 48.974 ikasle, Bigarren Hezkuntzan.

**Ekologia:** euri ura gordetzeko 1.662 egitura egin dira; 2.995.484 zuhaitz landatu dira, 1.463.096 fruitu arbola; 44.718 familiak jaso dute lehortearen aurkako fondo iraunkorren laguntza.

**Etxebizitza:** 15.606 etxebizitza eraiki dira, 599 ahalmen urrikoentzat egokitutakoak; 858 eskola eraikin egin dira.

**Osasuna:** 4 ospitale espezializatu (250 ohe); familia plangintzako zentro bat (100 ohe); osasunaren arloko langileak: 22 mediku, 86 erizain, 675 osasun langile.

**Emakumea:** 3.420 shangam edo emakumeen elkarte, 46.830 emakume bazkide; Emakumearen Bankua duten 902 herri; "Emakume artean" proiektuan parte hartzen duten 223 herri; eta laguntza jaso duten 7.819 emakume.

**Ahalmen urrikoak:** 19.562 lagunek jaso dute laguntza; 16 egoitza

eskola berezi egin dira; 1.082 vikalangula shangam edo ahalmen urrikoen elkarte; 13.470 bazkide.

## VICENTE FERRER FUNDAZIOA EUSKAL HERRIAN

Euskal Herriko ordezkariak 2005eko urtarriletik ari da lanean, baina ofizialki 2005eko maiatzaren 23an hasi zen; egun horretan izan zen inaugurazio ekitaldia, Euskalduna Jauregian. Indiatik Vicente Ferrer bera etorri zen ekitaldira, eta 1.000 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten. Vicente Ferrer Fundazioaren Euskal Herriko ordezkariak Monika Ortega da buru; fundazioaren ordezkaria da, eta ondo ezagutzen ditu elkartearen proiektuak, Indian bi urte baino gehiago egin baitzituen Vicenteren ondoan lanean. Ordezkaritza horretan egiten ari diren lan ikaragarriari eta euskal gizartearen elkartasunari eta konpromisoari esker, izugarri hazi da bai babesle eta bazkideen kopurua eta baita erakunde publikoen eta pribatuen dirulaguntzen zenbatekoa ere. Vicente Ferrer Fundazioak 127.000 bazkide ditu guztira Espainian, eta 6.550 Euskal Herrian.

## ELKARTASUNEZ JOKATZEN DUTEN ENPRESAK

Gero eta gehiago dira kezka sozialen inguruko ardura erakusten duten eta, gizarte eragile diren neurrian, elkartasunez jokatzeko gogoazalitzen duten enpresak. Gogo horri esker, Korporazioaren Erantzukizun Soziala beren egituren barnean txertatzen ari dira. Beraz, enpresa jarduera ulertzeko modu berri modura indartzen ari da Korporazioaren Erantzukizun Soziala, gero eta garrantzia handiagoa du, eta enpresen eta beren ingurunearen artean erlazio plano berriak

ezartzen ari dira beronen bidez. Vicente Ferrer Fundazioarekin lan egiten duten pertsonen proiektu serio eta eraginkor batean parte hartzen dute, eta elkarrekin, konpromiso bat hartzen dute: elkarrekin arituz, garapen programa batean lan egiteko eta Indian egoerarik okerreanean bizi diren pertsonen bizi baldintzak hobetzen laguntzeko konpromisoa. Vicente Ferrer Fundazioarekin elkarlanean aritzeko moduak:

- Indiako garapen proiektuak finantzatu: eskolen

eraikuntzan (6.550 €) lagunduz edota ahalmenak oso urrituta dituzten pertsonen biziarteko pentsioak ordainduz (350 €).

- Anantapurreko nekazarien komunitateetako umeak babestuz (13.500 €-rekin herri oso bat har daiteke babesean 10 urtean)
- Espainiar Estatuan fundazioa ezagutarazteko eta zabaltzeko sentsibilizazio jarduerak babestuz.
- Enpresaren berezko zerbitzuak doan eskainiz.



MONIKA ORTEGA.

FVFre Euskadiko Ordezkaria  
www.fundacionvicenteferrer.org  
Tel. 94 423 03 19

## Utikan ke guztiak

Bazirudien pasa den urtarrilaren 1ean Tabakoaren aurkako Legea indarrean sartzen zenean gure artean halako astinaldi bat biziko genuela. Aitzitik, lehen hilabeteak pasatu dira, eta bai enpresetan eta bai gizartean lege berria normaltasun osoz onartu eta errespetatu da. Erretzaileek pixka bat gutxiago erretzen dute orain, eta ez erretzaileak, berriz, ez dira lehen bezain erretzaile pasibo.



Tabakoaren aurkako Legea indarrean sartzearekin batera, ULMA Taldeak neurri hauek hartzea erabaki zuen:

1. ULMA osatzen duten pertsonen tabakoarekiko mendetasuna gaindi dezaten laguntzea eta erabaki hori har dezaten bultzatzea.
2. Plantetan erretzeko debekuaren seinalea ezartzea.
3. Gutun baten bidez langile guztiei banan-banan enpresak erretzeko baimenik ez duela ematen jakinaraztea.
4. Bisitarien erretzeko debekuarekiko txartelak banatzea.
5. Hautsontziak kentzea.
6. Norbait erretzen hasten bada, abisu ematea, eta erretzen jarraitzen badu, zigor erregimena aplikatzea.

### Erretzeari uzteak dakartzak onurak:

Erretzeari utzi ondoren...	
8 ordura	Odolaren oxigenatzea normala da berriro. Bihotzekoak emateko arriskua gutxitzen hasten da.
24 ordura	Gorputzak karbono monoxidoa kanporatzen du.
48 ordura	Odolean nikotinarik ez da hautematen.
astebetera	Dastamena eta usaimena hobetzen dira.
3-9 hilabetera	Arnasa hobeto hartzen da (eztut gutxiago, arnasan eusterakoan iraupen handiagoa). Biriken funtzioa % 5-10 hazten da.
urtebetera	Bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua (infartua, adibidez), erretzaile batek duenarekin alderatuta, erdira jaisten da.
10 urtera	Bihotzeko minbizia izateko arriskua, erretzaile batek duenarekin alderatuta, erdira jaisten da.
15 urtera	Bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua (infartua, adibidez) inoiz erre ez duten pertsonen duenaren parekoa da.

### ERRETZEARI UZTEKO WEB ORRIALDEAK

Tabakismoaren aurka borrokatzeko gero eta gehiago erabiltzen dira teknologia berriak Ipar Ameriketako elkartean. Horietako batzuk sarean daude. Horixe da, adibidez, MedlinePlus-en kasua: "utzi erretzeari" (<http://medlineplus.gov/spanish>), Medikuntzako Liburutegi Nazionalak tabakoari aurre egiteko eskaintzen duen zerbitzua; edota Estatu Batuetako Osasun Institutu Nazionalek eskaintzen dutena. Argibideak emateko izaera baino ez dutenen artean (besteak beste, berriak, txostenak, buletinak, aholkuak, foroak eta doako ikastaroak eskaintzen dituzte) asko aipa daitezke; Erretzeari Uzteko Eskola, Consumer.es Eroski etxekoa, adibidez: <http://escuelas.consumer.es/web/es/dejardefumar>. Erretzaileari erretzeari nola utzi behar dion eta zergatik erakustea da helburua. Beste orrialde erabilgarri bat hauxe da: Help. Tabakorik gabeko bizimodu baten alde (<http://es.help-eu.com>), osasunaz eta kontsumitzaileak babesteaz arduratzen den europar komisarioak sortutakoa.

### MEDIKUAREN AHOLKUAK

- Erretzeari uzteko, mendetasun bat gainditi behar da; horregatik, ezinbestekoa da plan bat prestatzea.
- Erabaki horren ondorioa mendekotasuna sortzen duen eta osasunari kalte egiten dion ohitura bat baztertzeko da, eta hori onartu beharra daukagu.
- Ezin dugu geure burua engainatu; zigarreta bat erretzea, edo xurgada bat hartzea, erretzea da.
- Beharrezkoa irudituz gero, aditua den mediku batengana jo genezake; honek, beharrezkoa dela iruditzen bazaio, mendetasun hori gainditzeko tratamendu bat agindu dezake.
- Erabaki behar da norberaren kabuz edo mediku baten laguntzarekin utzi behar zaion erretzeari.
- Komeni da tabakoa uzteko data bat jartzea.



Iñaki Igarzabal, ULMA Taldeko Lan Osasuneko arduraduna



## > Astebururako txangoak

Atal berri honetan, asteburuetan txangoak egiteko zenbait ibilbideren berri eman nahi dizuegu. Nahiko ibilbide errazak dira, zuretzat eta zure familia eta lagunentzat pentsatutakoak. Begira aldizkariaren zenbaki bakoitzean, eta Euskal Herria aldizkariaren laguntzari esker, ibilbide bat proposatuko dizugu. Ea gogoko duzun!



# Haitzulo koba: Erraldoien Leiho



### BIDAIARAKO GIDA

**Nola iritsi:** Oñatitik. Araotz auzoko Otalora baserrietara joango gara. Auzo horretara iristeko, hartu Arantzazura doan bidea, eta ondoren, Araozko ingurabidea.

**Denbora:** 40 min, joanekoa.

**Aholkua:** nahiko bide erraza bada ere, kontuz ibili Haitzuloko beheko leihora zoazenean. Malda bertikala izugarria da.

Aloña mendian, Araozko sakanen eta Artixa errearen goiko aldetik, leiho erraldoi bat ikusi daiteke. Garden ageri da begien eta haizeen aurrean, eta ikuskizun miragarriari begira jartzeko eta oso antzinako mitoak eta kondairak imajinatze-ko aukera ederra ematen digu. Ibilbideari Arantzazura doan errepidea hartuta emango diogu hasiera. Sakanen artean Jaturabe urtegiaren ertzeira iritsi arte aurrera eginez, errepide ertzean dagoen Araozko auzora iritsiko gara. Errepide estu horretan, presaren aurretik zubia gurutzatuko dugu, eta Sandailiiko ermita dagoen kobaren azpiko aldetik pasatuko gara. Gero, eskuinera doan bidea, Zubia auzora doana, hartuko dugu, eta azken baserrietara iritsi arte jarraituko da. Otalora baserrien aurrean, PR

seinale zuri-horiekin markatutako bidetik jarraituko dugu, hormen artetik iparraldera eginez. Malda pixka bat du hasieran, eta hasierako mendi bidea bidezidor bihurtuko da berehala; Sandailiiko koba aldera dauden pendizetara joko du bidezidor horrek. Pinudi batera iristen garenean, hesi bat pasatuko dugu, eta borda baten inguruan dagoen zabalgunea batera irtengo gara. Borda horren aurretik doa bidea, Orkatzategi gailurraurreko egitura osatzen duten harkaitzen artetik jarraitzen du. Malda handi samar batean gorantz egingo dugu astiro-astiro, kareharri arteko laugune batera iritsi arte. Haren mugan, bakartutako pinu bat aurkituko dugu, eta horixe izango da Haitzulo kobako zulo ezkutua aurkitzeko erreferentzia bakarra.

Pinutik oso gertu, bidea arrakala baten ondotik doa, eta harkaitz artean halako hutsune baten aurrera iritsiko da; gune hori gurutzatuz, leku ireki batera iritsiko gara. Beste aldera jo aurretik, gure begien aurrean Haitzuloko leihorik handiena ikusiko dugu parez pare. Beherantz doan barrunbe baten sakonean, aho beltz bat ikusiko dugu bertikalean, eta bailarara eroriko da goitik beherako zulo zorabiagarria. Lehenago, galeriaren eskuinaldera, beste bi ahoak ikusiko ditugu, txikixagoak horiek. Beheko ahoaren ertzeira iristea nahiko erraza da, betiere kontuz ibilita. Harri solteko eta lur hezeko bidezidor batetik muino batera iritsiko gara, eta nahiko erraz igo gaitzke bertara, paradisuaren jabe den iratxo baten pare sentitzeko.

Euskal Herria aldizkariak, ULMArekin lankidetzan, ULMA Taldeko bazkide eta langile guztiei harpidetza kanpaina bat zuzendu die. Euskal Herria aldizkariaren harpidedun izan nahi baduzu, deitu 902 18 14 71 telefonora, edo bidali mezu elektronikoa bat [bezero@euskalherria-aldizkaria.com](mailto:bezero@euskalherria-aldizkaria.com) helbidera. Gainera, opari hauek dituzu aukeran: bidaia poltsa, mendiko bastoia edo asteburu nekazaritza turismoko etxe batean.

## **Zure iritziz, bazkide eta langileek ondo ezagutzen al dituzte ULMA Taldeko negozioak? Ezagutza hori hobetzeko, zer ekintza eta/edo jarduera abiarazi daitezke?**

*Atal hau hobetzeko, gauza bat proposatu nahi dizugu: bidali atal honetan planteatuta ikusi nahi zenituzkeen gaiak edo galderak: [begira@begira.es](mailto:begira@begira.es)*



**ALBERTO GALDOS**  
ULMA Agrícola

**“Begira tresna egokia izan daiteke negozio horiek ondo ezagutzeko”**

Uste dut bakoitzak ezagutzen duela lan egiten duen Negozioa, hobeto edo okerrago: berau osatzen duten arloen funtzionamendua eta negozioaren xede den merkatua, batik bat; baina ez dakigu oso ondo taldeko beste Negozioek zehazki zer egiten duten, eta ezjakintasun hori are larriagoa da filialetan eta ordezkarietan. Uste dut Begira tresna egokia izan daitekeela irakurleari atsegin zaizkion erreportajeen bidez beronen historia, bertako jendea, produktuak, merkatua eta abar ezagutarazteko; eta horrela, garai batean Negozio bakoitzaren inguruan argitaratzen informazioa zabaldu daiteke bide batez.



**MIKEL MARTÍN**  
ULMA Orga Jasotzaileak

**“Langile bakoitza bere Negozioaz soilik arduratzen da”**

Lan egiten duzun Negozioa bai, baina uste dut langile bakoitza soilik berak lan egiten duen Negozioaz arduratzen dela.

Nire iritziz, Begira aldizkaria oinarri egokia da, baina ez dut uste beste jarduera batzuk egiteak arrakasta handirik izango lukeenik, batez ere gaur egun, kooperatibismoaren oinarriak galtzen ari diren eta gero eta geurekoiagoak garen garai hauetan.



**LARRAITZ VÁZQUEZ**  
ULMA Construcción

**“Oñatitik zenbat eta urrutia-go egon, orduan eta gutxiago ezagutzen duzu”**

Nire ustez, taldeko gainerako Negozioak oso azaletik ezagutzen ditugu, eta beroriei buruz dakiguna omenka dakigu, kalean entzun dugunetik... Uste dut ez dudala gezurrik esango, Oñatitik zenbat eta urrutia-go egon, orduan eta gutxiago ezagutzen dugula esaten badut. Kontseilutxoetan gai orokorrez hitz egiten dugu hileroko, negozio guztien kudeaketa kontrolaren bilakae-raz, adibidez; baina uste dute faktore soziala falta dela, gainerako bazkideak eta langileak zerk kezkatzen dituen jakitea, eta besteek gu zerk kezkatzen gaituen jakitea. ULMA Construcción negozioan hobeto ezagutzen dugu Packaging, beren kontseilu sozialetako aktak irakur ditzakegulako, izan ere, kooperatiba bera osatzen dugu. Uste dut kontseilutxoak ULMAren Negozioak ezagutzeko tresna egokiak direla, baina agian egoki izan daiteke taldearen gaiak gehixeago lantzea. Gakoa, agian, garrantzi handiagoa ematea da, eta kontseilu sozial nagusian gehixeago parte hartzea. Ideia ona izan daiteke Negozio guztietako kontseilu sozialen aktak oholztan edukitzea ere. Gainerako Negozioak ezagutzeko beste modu bat lantegietara bisitak egitea izan daiteke.



**ANDER MOIUA**  
ULMA Forja

**“Bakoitza bere Negozioa ezagutzeaz arduratzen da”**

Egia esan, ez dira gehiegi ezagutzen. Berorietaz zerbait baldin badakigu, lagunei eta senitartekoei zerbait entzun diegulako da, edota kontseilu sozialetan, kontseilutxoetan, adibidez, gai batzuk landu direlako. Baina oso azaletik ezagutzen dira, egia da hori (ULMA Taldea osatzen duten kooperatibak, beren produktuak etab.). Uste dut bakoitza bere Negozioa ezagutzeaz arduratzen dela, eta besteez justukoa baino ez dakigu. Sarrera libreko egunak antola daitezke, edo antzeko beste jarduera batzuk, Negozioak ezagutzeko. DVDak edo antzekoak ere argitara daitezke, Negozioak ezagutzeko.



**JESÚS Mª MATILLA**  
ULMA Handling Systems

**“Badira guretzat erabat ezegunak diren negozioak”**

Uste dut barnean taldeko negozio asko ezegunak direla. Negozioek beren politika jendaurrera eta oro har kanpora beren irudia zabaltzera zuzentzen badute ere, uste dut talde barneko erabiltzailea albo batera uzten dela arlo horretan, eta ez zaiola garrantzirik eta informaziorik ematen. Egoki izan daiteke gure korporazioaren web orrialdeak eta taldearen Intranet zerbitzuak sustatzea. Taldearen jarduera desberdinetan sartzeko lotura errazak eta nabarmenak ezartzea, ez soilik jarduera horiek bilduz, baizik eta baita beste hainbat gauza azpimarratuz ere: proiektuak, negozioaren bilakaera, merkatuko egoera etab. Jarduera horien erakusgarri diren argazkiak eta bideoak sartuz. Sarrera libreko egunen bidez, urtean behin bederen negozio horretan izan diren berrikuntzak nabarmendu daitezke, eta alderdirik garrantzitsuenak azpimarratu. Horrekin guztiarekin gure negozioaz izan dezakegun ikuspegia ez ezik talde osoarena ere hobetu egingo litzateke.



**AINTZANE MENDIZABAL**  
ULMA Hormigón Polímero

**“Gainerako Negozioak ezagutzeko bisitak antolatu beharko lirateke”**

Nik uste dut gainerako Negozioak ez ditugula nahikoa ezagutzen. Zein diren, eta horietako bakoitzak zer egiten duen badakigu, gutxi gorabehera; baina hortik aurrera ezer gutxi dakigu. Are gutxiago dakite Euskal Herritik kanpo ari diren bazkideek eta langileek. Langileen sailetik beste Negozioak ezagutzeko bisitak antolatzea ekimen interesgarria izan daitekeela uste dut. Bestalde, badaude Negozioen katalogoak, eta ondo legoke interesa duten pertsonen katalogo horiek eskura izatea. Gainera, ULMA Handling Systems negozioaren inaugurazioa gero eta gertuago dugun honetan, aukera ederra dugu eraikin berria ezagutzeko. Horrelako uneak ez dira maiz izaten, eta horrelakoez baliatu behar dugu.



**GERARDO MENDIZABAL**  
ULMA Packaging

**“Ez da erraza lan egiten duzun Negozioa bera ondo ezagutzea”**

Ez da erraza “ondo” horrek zer esan nahi duen definitzea. Gainera, azken urteetan izan den hazkunde handia aintzat hartuta, ez da erraza norberaren negozioa bera ere ondo ezagutzea. Leku guztietan bezala, hemen ere batzuek oso ondo ezagutzen dute, eta beste batzuek ez. Egia da, gure eguneroko zereginetarako gehienek ez dutela taldea ondo ezagutu beharrik. Hala ere, talde indartsu eta dinamiko bat, nortasuna duena, gararazi nahi badugu, ezinbestekoa da taldeak ULMA Taldearen balioak eta kultura bereganatzea. Nor garen, nondik gatozen eta nora goazen jakitea izan da etorkizuneko gakoa, eta halaxe da egun ere. Arlo horretan zuzendaritza taldeak dira prestakuntza handiena dutenak, eta horiek mugiarazi behar dira. Beteranoak datoz gero: horietako askok negozio desberdinetan lan egin izan dute, eta ikuspegi historiko sendoa dute. Gainerakook, normalean, ez daukagu informazio gehiegirik. Negozio bakoitza hobeto ezagutzeko bitartekoei dagokienez, hor ditugu Intranet, sarrera libreko egunak, hitzaldiak, Begira aldizkaria etab. Gauza guztietan bezala, hemen ere ezinbestekoa da norberak ahalegin txiki bat egitea. Hala ere, ez dut uste gaizki legokeenik sartu berriei prestakuntza ematea, oinarri bat izan dezaten. Organo soziale-tako ordezkariak ere ondo prestatuta egon behar lukete.

## Afrika, gure ikasbide

“Biziki maite dut bidaiatzea. Baina ez betiko bidaia turistiko horietan bidaiatzea, benetan bidaiatzea baizik. Bizkarrean motxila hartuta, eta joan-etorriko txartelarekin. Gainerakoa, bidean aurrera egin ahala... Duela lau urte, bidaia “turistiko” bat egin nuen, eta liluratuta eta hipnotizatuta gelditu nintzen. Magiaz, kolorez, usain gozoz... eta pobreziaz jantzitako kontinente bat aurkitu nuen. Jendeak duen guztia bidaiariaren esku uzten duen kontinente bat, jendea gosez eta gaixotuta hiltzen den kontinente bat. Bai, AFRIKA da, ez zabiltzate gaizki. Esaten dute Afrikara iristen zaren lehen-dabiziko aldian bertako paisaiak, jendeak, animaliek, lurrinek... liluratuta uzten zaituztela, eta gero, berriro bertara noiz bidaiatuko duzun burutik kendu ezinik ibiltzen zarela. Horrelaxe deskribatu zuen Livingstone doktorea aurkitu zuen Stanley famatuak bere liburu batean, eta horrelaxe bizi izan nuen nik. Orduz geroztik, urtero aurkitu dut Afrikara bidaia bat egiteko modua. Gero eta bidaia luzeagoetan, eta barru-barruko Afrika beltza deitzen diodan lurraldeko herrialdeetan barrena gero eta gehiago eginez. Jendeari lehenengo sortzen zaion galdera zera da, ea borondatezko lankide gisa joaten naizen. Erantzuna ezezkoa da, nahiz eta nire esku dagoena egiten saiatzen naizen... Normalean ezagutzen ez ditudan pertsonekin joaten naiz, bidaia talde txikietan. Aurretik soilik behar-beharrezko gauzak zehazten ditugu (hegaldiak, adibidez). Hortik aurrera, herrialde bat modu desberdinean ezagutzera zuzendutako abentura batean sartzen gara, xede dugun herrialde horretan eta bere inguruan gehixeago sartuz, kultura eta ohitura berriak ezagutzuz, eta ahal dugun neurrian, bertako jendearekin batera biziz. Horrela, ostatu, garraio edota jan-edanetan egiten ditugun gastuek zuzenean bertako jendeari ekartzen diote onura; neurri txikian bada ere, ekonomia txikien garapenaren alde egiten dugu, eta inguruarekin eta naturarekin errespetu osoz jokatzeko dugu beti. Orain, Turismo Iraunkorra esaten diote (termino honez eztabaida luzeak egin daitezke). Horrez gain, motxilan eskolako materialak, jantziak, sendagaiak eta abar sartzen ditut, ahalik eta gehien (motxilaren % 50). Herriz herri goazenean banatzen ditut. Ez dizkiot zuzenean inori ematen, ikastetxe eta eskolatan,

ospitaleetan, misioetan... uzten ditut. Badakit horrekin ez dudala gauza handirik egiten, baina azken bidaian oso gauza polita gertatu zitzaidan. Konstituzioko zubian izan zen, abenduan. Malira joan nintzen 9 egunerako. Eraman nuen eskolako material guztia eskola batean utzi nuen, beti bezala; herrialde hartako hiriburutik urrun zegoen herri batean. Esan nien ez zela gauza handirik, eta sentitzen nuela, baina hauxe esan zidaten irakasleek: hemendik pasatzen den turista edo bidaiari bakoitzak zuk utzi duzuna utziko balu, gauzak arras desberdinak lirateke.

Malira egin nuen bidaia hori oso esperientzia aberasgarria izan zen. Ospitale askotan egon nintzen, erditze geletan ari diren emaginak ikusten, eskolak bisitatzen etab. Afrikako jendeak dena ematen dizu, ezer eduki gabe. Bene-benetan, eta bihotzez diot, izugarritzko pena da bertan jendea gosez eta gaixotuta hiltzea, eta gu, bitartean, hurrengo denboraldian zer jantzi behar dugun kezkatuta ibiltzea hemen. Horrelako herrialde batera noan bakoitzean, jende guztiak han zer egin behar dudan, zer eramane behar dudan galdetzen dit. Hau besterik ez diet esaten: ez dut ezer eramane behar, ikastera noa, besterik ez. Ezer eduki ez arren hara iristen zarenean irribarre egiten dizun, ezagutu gabe agur egiten dizun eta azal kolore desberdinekoa izan arren errespetatzen zaituen jende horrengandik ikastera. Umeak nolakoak diren... (hitzik ez daukat), ematen diezuna ematen diezula, gozoki bat, muxu bat, erantzuna izugarria da: irribarre bat, Afrikan soilik ikus daitekeen esker oneko begirada bat. Iaz, irailean, Senegalen egon nintzen, eta bertako herritarra batean zenbait egun gonbidatuta egin ondoren, bertako agintariak herritarreko eta eskualderako pentsatuta zeukaten garapen programa erakutsi zidaten. Harrigarria! Hona ekarri dut, eta parte hartu izan dudane nire herriko (Torrejón de Ardoz) zenbait GKEren bidez eta Udaleko Nazioarteko Lankidetzako bulegoak babestuta, proiektu horretarako laguntzak lortzen saiatzen ari naiz.

Zorionak eman nahi dizkizuet, Begiran lan arlotik kanpoko jardueri zuzentzen diezuen atalarengatik.”

**Francisco Manzano.** ULMA Manutención negozioko bazkidea. Madril

**ERRETIROA HARTU DUTENAK:** ULMA Taldean 2006ko urtarrilaren 1etik apirilaren 31ra erretiroa hartu dutenak.



**Angel Mari Zurutuza**



**Vicente Biain**



**Jesús Larrea**



**Enrique Urquia**



Francisco Manzano umeen talde batekin.

**“Gaztarooan, bidaiak  
heziketa bide dira;  
zahartzarooan, esperientzia bide”.**  
**Sir Francis Bacon**

## ALDIZKARIA DISEINU ETA ATAL BERRIEKIN DATOR

Ikusi duzue 11. zenbaki hone-  
tan atal eta gai berriak txertatu  
ditugula aldizkarian, eta estilo  
aldaketa batzuk eta diseinuan  
ukitu batzuk ematera bultzatu  
gaitu horrek. Badakizue gure  
asmoa aldizkaria etengabe hobez-  
tea dela. Horretarako, zuek ere  
gai berriak bidaltzea eta interes-  
garri izan daitezkeen proposa-  
men berriak helaraztea nahiko  
genuke.

**ANIMATU  
ETA BIDALI  
ZURE IDEIAK  
begira@ulma.es!**

Gainera, beti bezala, irekita  
daukazu iradokizunen poston-  
tzia, zure iritzien zain;

**ULMA Taldea**  
**Zerbitzu Zentralak**  
**Otadui Pasealekua, 3 - 13 p.k.**  
**20560 OÑATI**  
**Ref.: Begira**  
**Email: begira@ulma.es**

*Soslaia... Begira aldizkariko  
atal berri bat da. Atal horre-  
tan, gure bazkide eta lan-  
gileetariko batekin solastuko  
gara.*



**soslaia**



**Carlos Sarabia**

*Komunikazioa eta Irudia  
Korporazioa. ULMA Taldea.*

Zer da zure lanetik gehien gusta-  
tzen zaizuna? Batez ere pertsona,  
pentsamendu eta giro desberdinak  
ezagutzea, eta beroiekin aurrez aurre  
jartzea. Nire lana eta funtzioak direnak  
direnaz, jende askorekin aritzen naiz,  
bai ULMAan bertan eta bai ULMAtik  
kanpo, eta hori oso aberasgarria da,  
zalantzarik gabe.

Astialedian zer egitea gustatzen  
zaizu? Foting pixka bat egiten dut,  
eta ahal dudanean, mendira joaten  
naiz. Deskonektatzen laguntzen dit,  
eta oso gomendagarria da hori.

Zein da azkena irakurri duzun liburua?  
Hau esatea “politikoki zuzena” ez bada ere,  
aspaldian ez dut ezer irakurri. Azkenaldian,  
beste zeregin batzuk ditut...

Zer da zuretzat alboratu ezin  
zenezakeena? Familia, lagunak... uste  
dut gehienek horixe erantzuko luke-  
tela. Finean, zure euskarriak dira, eta  
topikoak topiko, hauxe esan behar dut:  
azkenean horietatik zure ondoan  
daudenak.

Miresten duzun pertsonaiaren bat...  
Ez naiz batere mitomanoa. Bizitzan neure  
esperientziak baliatzen naiz, eta beti zer-  
bait positiboa ateratzen ahalegintzen naiz.  
Bai norberarentzat eta bai ondokoentzat,  
pazientzia eta irmotasuna bidaia lagun  
ezin hobekak direla uste dut.

Zer irakatsi dizu bizitzak? Daukadana  
estimatzeko. Bizi garen eritimoa eta gizar-  
tea direnak direlako, gauza batzuei izu-  
garrizko garrantzia ematen diegu, berez  
hainbesteko garrantzirik ez izan arren, eta  
garrantzitsuena ahazten dugu: osasuna  
eta geure buruarekin zorian su izatea.

*Eskerrik asko guztioi, eta goza dezazuela! Zorionak*



**Agustín Zabaleta**



**Felix Altube**



**Francisco Campo**



**José Ramón Biain**

# Animatu eta bidali zure argazkiak: Natura eta Mendia !!

Begira aldizkariak Naturari eta Mendiari buruzko zure argazkirik onenak bidaltzeko animatzen zaitu. Irudi onenen aukeraketa bat egin ondoren, 2007. urterako korporazioaren egutegia egingo da. Gainera, argazkiak bidaltzen dizkiguten guztien artean hainbat opari zozketatuko dira. 2006ko irailaren 27ra arte bidali daitezke argazkiak, posta elektronikoz, [begira@ulma.es](mailto:begira@ulma.es) helbidera, eta ohiko posta zerbitzuaren bidez, helbide honetara:

ULMA – Zerbitzu Zentralak  
Erref.: Begira  
Otaui Pasealekua, 3 - 13 p.k.  
20560 OÑATI

Argazkiak bidaltzen dizkiguten lehenengo hamar pertsonen artean, Oñatin maiatzaren 26an izango den kontzerturako sarrera bana emango diegu. Kontzertuan, rumbak euskeraz egiten dituen MAL DE OJO taldeak eta AMPARANIOAK, Granadatik disko berriarekin datorrena, joko dute.

## EZAUGARRI TEKNIKOAK:

- Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan.
- Argazkia. Digitala: JPG formatuan, bereizmen handikoa (300 ppp), neurri erreala.
- Paperean: neurri txikiena: 13x18 cm; eta handiena: 40 x 30 cm



animatu eta  
bidali argazkia

